

1. Lan-zuzenbidearen eta boluntariotzaren arloko ohiko galderak

1.1 Badago inoren konturako bi lanetan aritzeko aukerarik?

Bai. Lanaldi partzialeko kontratuekin gertatu ohi da. Nolanahi ere, Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, ezin da kotizatu [kotizazioaren gehieneko oinarria](#)ren gainetik.

1.2 Norberaren kontura lan egin daiteke eta inoren konturako lan bat izan?

Bai. Argibide gehiagotarako, [Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren](#) 313. artikulua kontsulta daiteke (*Gutxieneko oinarria, jarduera-aniztasuneko egoeran*).

1.3 Zer gertatzen da autonomo faltsuaren kasuetan?

Kasu hauetaz ari gara: enpresak langile autonomo faltsua behartzen du [LAAB](#)en alta egitera, eta ez du bere gain hartzen langilea Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatzea. Arau-hauste larria da [Gizarte-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen 22. artikulua](#)rekin bat.

1.4 Badago aukerarik jarduera ekonomikoaren epigrafe batean baino gehiagotan alta emanda egoteko?

Bai. Jarduera ekonomiko bat baino gehiago eginez gero, posible da [036 ereduan](#) epigrafe batean baino gehiagotan alta emanda egotea.

1.5 Zein da boluntariotza-itun baten esparruan boluntario bati egunean/hilean gehienez ordain dakioken kopurua?

Boluntarioen kasuan, ez dago lan-harremanik; beraz, ezin da kontraprestazio ekonomikorik egon boluntariotza-itun baten esparruan egin diren ekintzak direla-eta. Baina boluntarioek boluntario-jarduera egitean sortu diren gastuen ziozko konpentsazioa jasoko dute; gastuok, besteak beste: joan-etorrietan sortutakoak eta mantenu-gastuak (otorduak). Betiere, faktura edo tiket bidez egiaztatu behar dira halako gastuak, eta kontabilitatean erregistratuta geratu behar dira.

1.6 Boluntariotza-ituna erakunderen batera bidali behar da edo klubaren eta harekin lankidetzan diharduten boluntarioen artekoa da?

Boluntariotza-ituna klubaren eta boluntarioen artekoa da. Gaiari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu [Bolunta](#)rekin.

2. Zerga-zuzenbidearen arloko ohiko galderak

2.1 Neure kirol-kluba sortuko banu, langile autonomo gisa egindako lana BEZa ordaintzetik

salbuetsita legoke? Izan ere, salmentak izan beharrean, BEZik gabeko bazkide-kuotak lirateke.

[BEZari buruzko Foru Arauaren 20.Bat.13 artikuluko](#) BEZaren salbuespena aplikatzeko baldintzak honako hauek dira([gidaren 42. orrialdea](#)): 1) Kirola edo hezkuntza fisikoa egiten duten pertsonen egindako zerbitzuak izatea, ematea egin duen pertsona edo erakundea dena delakoa; 2) baina beti ere zerbitzu horiek kirola edo hezkuntza fisikoa egitearekin zuzen-zuzenean zerikusia izan behar dute, eta 3) hauetariko erakunde edo pertsona batek emandakoak izan behar dira: a) Zuzenbide

publikoko erakundeek; b) Kirol federazioek; c) Espainiako Batzorde Olinpikoak; d) Espainiako Batzorde Paraolimpikoak; e) Gizarte izaerako kirol erakunde edo establezimendu pribatuek. Salbuespena ez zaie ezarriko kirol-ikuskizunei. Ildo horretan, azpimarratu behar da ezen, **salbuespena aplikatu ahal izateko, kirol-klubak «Izaera sozialeko kirol-establezimendu» gisa kalifikatua izateko baldintza guztiak bete behar dituela** ([gidaren 88. orrialdea](#)), zehazki: a) irabazi-asmorik ez izatea, b) presidente- eta patrono-karguak eta legezko ordezkariarena doakoak izatea; salbuetsitako eragiketen (gizarte-laguntza eta kirolak izan ezik) hartzaileak ezingo dira izan arauak zehatutako loturetako bat duten pertsonak (bazkideak, parte-hartzaileak, ezkontideak...). Baldintza horiek bete ezik, emandako zerbitzuek BEZa izango lukete. «Izaera sozialeko kirol-entitate edo -establezimenduaren izaera aitortzea» eskatzeko moduari buruzko informazioa [esteka honetan](#) dago.

2.2 Zer ondorio fiskal dituzte arbitraje-zerbitzuek federazioarentzat zein arbitroentzat? Zein gastu izango liriteke kengarriak?

Arbitroek **lan-mendekotasunaren** araubidean ematen badituzte beren zerbitzuak, lan-kontratu baten bidez:**a) PFEZaren ondorioetarako:** Oro har, kirol-federazioetako arbitroek jasotzen dituzten zenbatekoak lan-etekintzat jotzen dira, lan-harremanik izan ez arren; izan ere, hasiera batean ulertzen da ez dutela egiten beren konturako bitartekoen antolaketarik ([V0349-20 kontsulta loteslea](#)). **b) BEZaren ondorioetarako:** Autonomia-erkidegoko federazioak bere erakunde federatuei kirol-lehiaketetarako utzitako epaile eta arbitroen zerbitzuak, erakundeoi lehiaketak behar bezala garatzeko lagapenaren bidez utzitakoak, zergapetuta egongo dira, baina BEZa ordaintzetik salbuetsita. Arbitroek zerbitzuak ematen badituzte [036 ereduaren](#) bidez alta emanda daudela **«Kirol-ikuskizunetako arbitroak» taldean (jarduera ekonomikoen tarifetako hirugarren ataleko 08 taldean): a) PFEZaren ondorioetarako:** Jarduera garatzean jasotzen dituzten diru-sarrerak jarduera ekonomikoen etekin osoak izango dira. **b) BEZaren ondorioetarako:** Kontratatzan dituen kirol-klub bati edo kirol-proben antolatzaile bati zuzenean ematen dizkioten zerbitzuak direla-eta % 21eko BEZa ordaindu beharko dute. Arbitroen enpresa- edo lanbide-jarduerari zuzenean atxikitzen zaizkion gastuengatik jasandako kuotak kengarriak izango dira, bai eta kirol-lizentzia, uniformeak eta ekipamendua eta jarduera profesionalerako bakarrik erabilitako lan-materiala eta aseguruak ere. ([V0384-17](#), [V1699-16](#) eta [V2416-18 kontsulta lotesleak](#) (**OHARRA:** Nolanahi ere, [PFEZaren 13/2013 Foru Arauak](#) ez ditu kengarritzat jotzen lanbide-elkargoei ordaindutako kuotak, lanaren etekin garbia zehazteko ondorioetarako).

2.3 Zer berezitasun ditu eskola-kiroleko programa gauzatzeak?

Eskola-kiroleko programa gauzatzean esku hartzen duten monitore, arbitro, epaile, ordezkari, kirol-arduradun, federazioko zuzendari tekniko eta entrenatzaileen kasuan, honako hauek salbuetsita egongo dira: eskola-kiroleko programa gauzatzean edo eskola-adinean dauden kirolarientzako jarduerak gauzatzean (Bizkaiko Foru Aldundiak baimenduta) jasotzen dituzten etekinak, edo kirol-federazioen jarduerak gauzatzen ([Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuan](#) araututakoak) jasotzen dituztenak. Etekin horiek lanbide arteko gutxieneko soldata izango dute muga. Muga horretatik gora jasotzen diren etekinak (diru-sarrerak) pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren pean egongo dira — ez salbuetsita —, eta atxikipenen taula orokorrean ezarritakoaren arabera ordainduko dute zerga.

2.4 Kirol-kluben kasuan, zerk erabakitzen du errenta bat SZ ordaintzetik salbuetsita dagoen ala ez?

SZren ondorioetarako, errentaren jatorria funtsezkoa da salbuetsita dagoen ala ez erabakitzeke. Adibidez, kasu honetan, *kirol-klubaren helburu soziala edo xede espezifikoa diren jardueretatik datozen errentak* egongo dira salbuetsita. Aitzitik, jarduera ekonomikoak garatzeagatik lortutako errentak (adibidez: arropa-salmentengatik edo *merchandising*agatik) diru-sarrerak, edo taberna, txosna edo anbiguak instalatzeagatikoak) ez lirateke salbuetsita egongo, eta % 19an ordainduko lukete zerga. ([Gidaren 50. eta 51. orrialdeak](#)).

3. 2021eko kontsulta lotesleak eguneratzea:

***Oharra: Kontsulta lotesle osoetara sartzeko, hiperrestekan klik egin behar da, eta ondoren irekiko den online formularioan erreferentzia sartu. ***

3.1 [Erreferentzia:V1092-21 kontsulta loteslea/Erakunde igorlea: Tributuen Zuzendaritza Nagusia](#)

- **Data:** 2021/04/26 **Zerga-mota:** SZ, EJZ, BEZa
- **Laburpena:** Kirol-klub baten kontsulta; irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatu gisa eratu dago, eta ez dago onartuta onura publikoko elkarte gisa [49/2002 Legea](#)ren ondorioetarako. Haren jarduera nagusia kirola sustatu eta praktikatzea da (batez ere hondartzako eskubaloia), bai eta eremu federatuko kirol-jarduera edo -lehiaketetan parte hartzea ere. Galdetu dute zer tratamendu fiskal duten beherago adierazitako diru-sarrerak sozietateen gaineko zergaren, ekonomia-jardueren gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.
- **BEZaren ondorioetarako:**
 1. **Kirol-klubei laguntzeko emandako dirulaguntza publikoak:** Ez dute BEZik ordaindu behar.
 2. **Enpresaburu pribatuen ekarpenak edo lankidetzak:** Ez dute BEZik ordaindu behar, baldin eta ekarpena lankidetzak-hitzarmen baten esparruan egiten bada eta halakotzat jotzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badira. Bestela, zergaren % 21eko tasa orokorra ordaindu beharko dute.
 3. **Klubarekin lankidetzan aritzen diren enpresen hotel edo jatetxeetan zozketa batean parte hartzeko txartelen noiz behinkako salmenta.** BEZik gabekoak, txartel horiek zozketen, tonbolen, apustuen eta ausazko konbinazioen tasa ordaintzen badute. Bestela, zergaren % 21eko tasa orokorra ordaindu beharko dute.
 4. **Hondartzako eskubaloian jokatzeko bazkideek ordaindutako kuotak:** BEZik gabekoak, elkarteak izaera sozialeko establezimendu pribatutzat jotzen bada eta hala erregistratuta badago.
- **EJZren ondorioetarako:** Txartelak saltzeko, hondartzako eskubaloi-txapelketetan parte hartzeko eta hondartzako eskubaloian prestatzeko jarduerak baino ez dute ordaindu beharko EJZ; alegia, ez dira salbuetsita egongo. Aurreko zerrendako gainerako atalak (dirulaguntzak, enpresaburuen ekarpenak eta bazkideen kuotak) ez daude ekonomia-jardueren gaineko zergaren pean.

- **SZren ondorioetarako:** Onura publikoko deklaratu ez denez, entitatea «**partzialki salbuetsi**» gisa sailkatu da. Salbuetsita egongo dira erakundearen xede edo helburu espezifikoak gauzatzetik datozen errentak, jarduera ekonomiko bat gauzatzetik ez datozenak. Jarduera ekonomikoetatik datozen errentak zergapetuta egongo dira, ez salbuetsita. (Argibide gehiago lortzeko, kontsultatu [gidaren 50. orrialdea](#)).

3.2 Erreferentzia:V1287-21 kontsulta loteslea/Erakunde igorlea:Tributuen Zuzendaritza Nagusia

- **Data:** 2021/05/06 **Zerga-mota:** BEZa.
- **Laburpena:** Kirol nautikoak sustatzen dituen irabazi-asmorik gabeko elkarte batek zalantza du eragiketa hauek BEZari dagokionez duten tratamenduaren inguruan:
 1. **Bazkideei kuota kobratzea; estropadetan izena emateko kuotak kobratzea:** BEZik gabekoak, elkarteak izaera sozialeko establezimendu pribatutzat jotzen bada eta hala erregistratuta badago.
 2. **Nabigazioarekin lotutako prestakuntza-ikastaro teoriko edo praktikoengatik diru-sarrerak:** BEZetik salbuetsita, klub nautikoak berak ematen baditu. Bestela, zergaren % 21eko tasa orokorra ordaindu behar dute.
 3. **Itsasontziak lehorreratzeko eta amarratzeko zerbitzuengatik diru-sarrerak:** BEZa ordaindu behar dute, % 21eko tasa orokorra.
 4. **Ontziak garbitzeko edo kroskoa pintatzeko zerbitzuengatik diru-sarrerak:** BEZa ordaindu behar dute, % 21eko tasa orokorra.
 5. **Hirugarren batek jatetxe-arloko jarduerak egin ditzan elkarteak lokala hirugarren horri lagatzearen ondoriozko diru-sarrerak:** BEZa ordaindu behar dute, % 21eko tasa orokorra.
 6. **Babesleek karteletan edo hesietan publizitatea egitearen truke jasotako zenbatekoak:** Ez dute BEZik ordaindu behar, baldin eta ekarpena lankidetzaren hitzarmen baten esparruan egiten bada eta halakotzat jotzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badira. Bestela, zergaren % 21eko tasa orokorra ordaindu beharko dute.

3.3 Erreferentzia:V1643-21 kontsulta loteslea/Erakunde igorlea:Tributuen Zuzendaritza Nagusia

- **Data:** 2021/05/31 **Zerga-motak:** EJZ, PFEZ, BEZa
- **Laburpena:** Kontsulta egin duenak abokatu dihardu, eta, bere jarduera profesionalarekin batera, zaldiketan aritu da, modu pertsonalean, ohikoan eta zuzenean, eta Espainiako Errege Federazio Hipikoa federatuta egon da. 2019an, 15 lehiaketatan parte hartu zuen; haietan, **zenbait sari** jaso ditu; **diru-sarrerak**, guztira, 15.337,05 euro.
- **Ekonomia-jardueren gaineko zergari** dagokionez, kontsultak argitzen du pertsona fisikoak salbuetsita daudela zerga horretatik. Jarduera ekonomiko horren kodea 047 izango litzateke.
- **BEZaren ondorioetarako**, kontsulta egin duen pertsona lehendik bazen profesionala, abokatutzan aritzeagatik. Kontsultan azaldutako egitateak direla eta, hipikaren praktika jarduera profesional gisa kalifikatzen da BEZaren ondorioetarako, non eta ez den egiten puntualki, aldizka eta jarraitutasun-asmorik gabe. Jarduera profesional gisa kalifikatzen denez, kontsulta egin duenak jarduera dela-eta jasandako BEZaren kuotak kendu ahal izango ditu.

- **PFEZari dagokionez**, sarien tributazioari buruz galdetzen da, eta ea jarduera ekonomikoan egindako gastuak kengarriak diren. Kontsultaren arabera, hipika-jarduera jarduera ekonomikotzat hartzen den ala ez kontuan hartuta ordainduko da zerga sari horiek direla-eta. Jarduera ekonomikotzat hartzeko, profesionalak bere kontura antolatu behar ditu ekoizpen-bitartekoak.
- **Jarduera ekonomiko gisa kalifikatuz gero**, sariak jarduera ekonomikoan etekin gisa tributatuko dute, eta zerga kalkulatzeko, jardueran egindako gastuak kendu ahal izango dira, legean horretarako ezartzen diren baldintzak betetzen badira.
- **Jarduera ekonomiko gisa kalifikatu ezean**, sariak ondare-irabazi gisa tributatuko dute.

3.4. [Erreferentzia: V1748-21 kontsulta loteslea/Erakunde igorlea:Tributuen Zuzendaritza Nagusia](#)

- **Data:** 2021/06/04 **Zerga-mota:** BEZa.
- **Laburpena:** Kontsultan galdetzen da ea **entrenatzaileek kirol-klubei emandako zerbitzuak** direla-eta BEZa ordaindu behar duten, eta, horren ondorioz, faktura jaulkitzeko aukera duten enpresaburutzat edo profesionaltzat hartuko liratekeen.
- **Erantzuna:** Kontsultak ebazten duenaren arabera, zerbitzu horiek direla-eta BEZa ordaindu behar izateko, entrenatzaileek jarduera ekonomiko bat garatzeko asmoa izan behar dute, eta jarduera horretan ekoizpen-baliabide propioak antolatu behar dituzte. Kasu horretan, zergaren obligazio ekonomikoak zein materialak bete beharko lituzkete, hala nola faktura jaulkitzea eta dagozkion ereduak aurkeztea. Salbuespenez, jarduera puntualki, aldizka eta jarraitutasun-asmorik gabe egiten bada, ez litzateke BEZa ordaindu behar duen eragiketa bat.

3.5 [Erreferentzia:V1787-21 kontsulta loteslea/Erakunde igorlea:Tributuen Zuzendaritza Nagusia](#)

- **Data:** 2021/06/09 **Zerga-mota:** PFEZa.
- **Laburpena:** Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tratamendu fiskalari buruzkoa da kontsulta. Galdetzen da ea **kirolariek beren kirol-lizentzia eskuratzeko lurraldeko kirol-federazioei egiten dizkieten ordainketak** dohaintzat hartzen diren eta, beraz, PFEZean kenkarirako eskubidea sortzen duten.
- **Erantzuna:** Kontsultak aurretik gai hau aztertu duten beste kontsulta batzuen ildotik ebazten du ezen zenbait betekizun bete behar direla, hala nola dohaintzak borondatezkoa izan behar duela eta liberaltasun-asmoa izan behar duela (hau da, horren truke inolako kontraprestaziorik izan gabe) Esku artean dugun kasuan, kirolariek ekarpen horiek egin behar dituzte federatua izateko, eta, kontraprestazio gisa, zenbait eskubide jasotzen dituzte, besteak beste: lehiaketa ofizialetan parte hartzeko aukera edo aseguru medikoaren onuradun izateko aukera. Hortaz, borondatezkoa izateko eta liberaltasun-asmorik gabekoa izateko baldintzak betetzen ez direnez, ez dute kenkarirako eskubiderik sortzen.

3.5 [Erreferentzia: BEZa/Babesa gako-hitzak. Erakunde igorlea: Bizkaiko Foru Ogasuna/Bizkaiko Foru Aldundia](#)

- **Data:** 2021/06/25 **Zerga-mota:** BEZa.

- **Laburpena: Erakunde mota:** Kirol-klub bat, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatu gisa eraturakoa, **kirol-lasterketen antolamendua** jarduera nagusi duena.
- **Kontsulta** Tokiko enpresa-erakunde publiko batek (EPEL) **babesletza-itun** baten bidez jasotako dirusarrerek zer tratamendu duten. Itun hori dela bidez, erakundeak 20.000 euro eman dizkio kirol-klubari, jarduten duen udalerrian **nazioarteko lasterketa** bat finantzatzeko, eta hark babes hori panfletoetan jasota uzteko konpromisoa hartu du. Halaber, erakundeak bere komunikazioetan babes hori aipatzeko ahalmena zuen. **Erantzuna:** 1) Kontsultak argitzen duenez, eragiketa horrek [4/2019 Foru Arauan](#) araututako **enpresa-lankidetzako hitzarmenetako betekizunak** betetzen baditu, eragiketak **ez luke BEZik ordaindu beharko. Bestela, % 21eko tasa orokorra ordaindu behar duen zerbitzu-prestazioa izango litzateke.** 2) **Kirola egitearekin zerikusia duten hainbat zerbitzu BEZa ordaintzetik salbuesteari dagokionez.** Kontsultak [2018ko otsailaren 1eko 7724 zenbakiko kontsultara bidaltzen gaitu \(aurreko kontsulta\)](#). **Zergapetutako eragiketen adibideak:** Kirol-arroparen eta -materialaren salmenta; bazkideen kuotak, kirol-ikuskizunetarako sarbidea ordaintzen dutenak. **Salbuetsitako eragiketen adibideak:** Bazkideen kuotak: a) haien bidez bazkideei kirolarekin zuzeneko zerikusia duten zerbitzuen ematea (eskolak ematea, entrenamenduak, klubaren kirol-instalazioak erabiltzeko aukera, etab.) ordaintzen bada edo ordaintzen den zatian; b) haien bidez eskolak, entrenamenduak, prestakuntza, edo kirol-ikuskizunak ordaintzen badira (edo ordaintzen den zatian), zeinetan kirol-praktika (oinarri-kirolean eta kirol amateurrean, bereziki) gailentzen baitzaio kirol-ikuskizunari **OHARRA:BEZari buruzko Foru Arauaren 20.Bat.13 artikuluan** (BEZFA) jasotzen den salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek bete behar dira: a) eragiketek zerbitzuen emateak izan behar dute (EZ ondasunen emateak); b) Emandako zerbitzuek zuzenean lotuta egon behar dute pertsona fisikoaren kirol-praktikarekin edo hezkuntza fisikoarekin; c) Zerbitzuen jasotzaile material eta benetakoek kirola egiten duten edo hezkuntza fisikoan diharduten pertsona fisikoak izan behar dute, kontuan hartu gabe zerbitzuak haien kontura edo hirugarrenen batzuen kontura ematen diren; d) Zerbitzuak ematen dituenak [BEZFaren 20.Bat.13 artikuluan](#) berariaz aipatutako erakundeetako bat izan behar du: zuzenbide publikoko erakundeak, kirol federazioak, Espainiako Batzorde Olinpikoak, Espainiako Batzorde Paraolimpikoak edo gizarte izaerako kirol erakunde edo establezimendu pribatuak ([BEZFaren hirugarren apartatua](#) mugatutakoak) **3) Jasandako kuotak kentzea:** Azkenik, kontsultak argitzen du kirol-klubak jarduerak egiteko jasandako kuotak kentzeko aukera dagoela. Horretarako, lehenik, kirol-klubak sailkatu behar ditu zergarik ordaindu behar ez duten jardueretarako egindako gastuak (adibidez, dirulaguntzen, dohaintzen edo enpresen arteko lankidetzak-hitzarmenen ondoriozko diru-sarrerak, [4/2019 Foru Arauaren](#) arabera), eta BEZa ordaindu behar dutenentarako egindakoak. Bigarrenik, BEZaren kengarritasunaren ehunekoak kalkulatu beharko da, hainbanatzearen erregelaren arabera ([gidaren 46. orrialdea](#)). Horretarako, beharrezkoa izango da BEZa ordaintzetik salbuetsita dauden ([BEZFaren 20.Bat.13 artikuluan](#) eta [20.Hiru artikuluan](#) salbuetsiak izateko araututakoa betetzen dutenak) eta salbuetsita ez dauden diru-sarreren arabera sailkatzea.

3.2 Erreferentzia: Gako-hitzak: BEZa/Prestakuntza-eskubideak [Erakunde igorlea:Bizkaiko Foru Ogasuna](#).

- **Data:** 2021/08/01 **Zerga-mota:** BEZa

- **Laburpena:** Bizkaiko kirol-klub batek futbol profesionaleko Kroaziako klub bati emandako zerbitzu bati eman beharreko tratamendua, BEZaren ondorioetarako. Zerbitzua, zehazki, **Bizkaiko taldeari futbol-jokalari profesional baten lekualdaketagatik dagozkion prestakuntza-eskubideetan** datza.
- **Erantzuna:** Kontsultak, aplikatu beharreko jurisprudenzian oinarrituta, zera adierazten du: BEZari dagokionez, prestakuntza-eskubideak ordaintzen dituzten kirolarien lagapenak edo eskualdaketak zerbitzu-emateak dira, BEZari dagokionez, ordaindutako zenbatekoei ematen zaien izena edozein dela ere (konpentsazioa edo kalte-ordaina).
Kontsultaren kasu zehatzean, zerbitzua zerga aplikatzen den lurraldean dago (Espainian). Hala ere, lagapena ez dago Espainiako BEZak zergapetuta, hartzailea enpresaburu kroaziarra baita. **OHARRA:** Bizkaiko klubak zein Kroaziako klubak alta emanda egon behar dute [Europar Batasunaren barruko operadoreen erregistroan](#), eta Bizkaiko klubak [modelo 349 ereduan](#) aitortu behar du Europar Batasunaren barruko zerbitzu-ematea Azkenik, eragiketa honek ez du ekarriko [309 eredua](#) (aldizkakoa ez den aitortpena) aurkezteko betebeharririk.